

Bizilagun estimatua:

Ohar honen bidez, gure herrian azken boladan ikusten ari garen zenbait jarrera desegoki ekiditeko informazioa eman nahi dizugu.

Pasaia garbi mantentzea herritar guztion ardura da, ez udalarena bakarrik. Egunero-egunero Pasaia kale garbiketako langileek gure kale eta hondakin-guneak txukun mantentzeko ahalegin handia egiten dute. Baina, tamalez, herritar batzuen ekintza ezegokiek lan hori zapuzten dute.

Hori dela eta, Pasaia Udaletik erabaki dugu herritar guztiei argibide zuzenak ematea eta jarrera horiek izan ditzaketen ondorioen inguruan ohartaraztea.

ETXEKO HONDAKINEN BEREIZKETA ETA BILKETA

Gogorarazi nahi dizuegu, Estatuan onartu den 7/2022 Legearen arabera, **herritar bakoitzak etxeako hondakinak bereizi eta dagokion edukiontzian utzi beharko dituela**. Hori horrela izan dadin, Pasaia Udalak bost (5) edukiontzi ezarri zituen aspaldi hondakin-gune bakoitzean: biohondakina*, ontzi arinak, papera, errefusa eta beira.

Horrez gain, gogorarazi nahi dizuegu olio, arropa, kapsulak, pilak eta Gailu Elektriko eta Elektronikoen Hondakinak (GEEH) jasotzeko edukiontziak ere badaudela udalerriko gune estrategikoetan.

Mesedez, horiek modu egokian erabiltzeko eskatzen dizuegu, eta gogoratu: **debekatuta dago hondakinak edukiontzietatik kanpo uztea**. Edukiontziren bat beteta badago, hurbilen dagoen gunera joan beharko da hondakinak dagokion edukiontzian uztera.

**Biohondakinaren (organikoaren) edukiontzia irekitzeko txartela HAZ bulegoetan eska daiteke (943 344034).*

TAMAINA HANDIKO HONDAKINEN BILKETA

Pasaia Udalak altzari zaharrak eta trasteak biltzeko zerbitzua eskaintzen du astean behin barruti bakoitzean.

Tamaina handiko hondakinak **soilik udalak zehaztutako tokian, ordutegian eta egunean atera daitezke**: Trintxerpen (asteleheneretan), San Pedron (asteartean), Donibanen (asteazkenetan) eta Antxon (ostegunetan). Hemen kontsulta ditzakezu udalak zehaztutako tokiak eta ordutegiak: pasaia.eus/eu/altzari-bilketa

Altzariak uzteko eremuak dagokien seinalearekin identifikatuta daude, eta hondakinak inguru horretan bakarrik utzi daitezke. **Erabat debekatuta dago hondakin handiak edukiontzien kontra jartzea eta zehaztutako guneetatik kanpo botatzea**.

**Ezarritako guneak eta egunak ez errespetatzeak 301,00 €-tik 1.000 €-ra arteko isunak ekar ditzake.*

ZAKURREN KAKAK

Amaitzeko, zakurren jabeek gogorazten dizuegu Animaliak izan eta Babesteko Udal Ordenantzaren arabera, derrigorrezkoa dela bide publikoan txakurrak lepokoarekin eta uhalarekin eramatea.

Horrez gain, **debekatuta dago txakur-gorotza bide eta plaza publikoetan, hurren parkeetan, lorategietan, parterretan eta, oro har, apaindura-tokietan edo jendea biltzen den tokietan uztea***. Txakurraren jabeak edo txakurra daramanak dauka horiek jasotzeko ardura. Horretarako, poltsa iragazgaitzetan sartu, poltsa itxi eta zakarrontzira bota beharko ditu.

**Zakurren kakak ez jasotzeak 500 eurotik gorako isunak ekar ditzake.*

ZAINDU ETA MANTENDU DEZAGUN GARBI GURE HERRIA DENON ARTEAN. GUZTION ARDURA DA.

Pasaia, batera garena.

Estimado/a vecino/a,

A través de esta nota queremos trasladarle la siguiente información con el fin de evitar ciertos comportamientos inadecuados que venimos observando en nuestro municipio en los últimos tiempos.

Mantener limpio Pasaia es responsabilidad de toda la ciudadanía, no sólo del ayuntamiento. Todos los días el personal de limpieza viaria de Pasaia realiza un gran esfuerzo por mantener en orden nuestras calles y zonas de residuos, pero lamentablemente los comportamientos inadecuados de algunos/as vecinos/as frustran esta labor.

Por ello, desde el Ayuntamiento de Pasaia hemos decidido informar directamente a toda la ciudadanía y advertirles sobre las posibles consecuencias de estas actitudes.

SEPARACIÓN Y RECOGIDA DE RESIDUOS DOMÉSTICOS

Recordarles que en el marco de la Ley estatal 7/2022 **cada ciudadana deberá separar los residuos domésticos y depositarlos en el contenedor correspondiente**. Para ello, hace tiempo que el Ayuntamiento de Pasaia instaló cinco (5) contenedores en cada uno de los puntos de recogida de residuos: biorresiduo*, envases ligeros, papel, rechazo y vidrio.

Además, recordarles que también existen contenedores para la recogida de aceite, textiles, cápsulas, pilas y Residuos de Aparatos Eléctricos y Electrónicos (RAEE) en puntos estratégicos del municipio.

Por favor, les rogamos encarecidamente que hagan un uso adecuado de los mismos, recordándoles que **está prohibido dejar los residuos fuera de los contenedores**. Si alguno de los contenedores está lleno, se deberá acudir a la zona más cercana para depositar los residuos en el contenedor correspondiente.

**La tarjeta de apertura del contenedor de biorresiduo (orgánico) se puede solicitar en las oficinas del SAC (943 344034).*

RECOGIDA DE VOLUMINOSOS

El Ayuntamiento de Pasaia ofrece un servicio semanal de recogida de muebles viejos, trastos,... en cada distrito.

Los residuos voluminosos **sólo se pueden depositar en el lugar, horario y fecha que determine el ayuntamiento**: Trintxerpe (lunes), San Pedro (martes), Donibane (miércoles) y Antxo (jueves). Puede consultar aquí los espacios y horarios determinados por el Ayuntamiento para este fin: pasaia.eus/es/recogida-muebles

Las zonas de depósito de voluminosos están identificadas con la señal correspondiente y los residuos sólo pueden depositarse en su entorno. **Queda terminantemente prohibida la colocación de residuos voluminosos contra los contenedores así como fuera de los espacios destinados a tal fin**.

**No respetar las zonas y días establecidos, puede suponer multas de 301,00 € a 1.000 €.*

CACAS DE PERROS

Para finalizar recordamos a las personas propietarias de perros que, según la ordenanza municipal de Tenencia y protección de animales, es obligatorio llevar a los perros con collar y correa en la vía pública.

Además, **se prohíbe depositar el excremento canino en las vías y plazas públicas, parques infantiles, jardines, parterres y, en general, lugares ornamentales o de pública concurrencia***. La persona propietaria o portadora del perro es la encargada y responsable de recoger sus excrementos. Para ello deberá introducirlos en una bolsa impermeable, cerrarla y depositarla en las papeleras.

**La no recogida de las cacas de los perros puede suponer multas superiores a 500€.*

CUIDEMOS Y MANTENGAMOS LIMPIO NUESTRO PUEBLO ENTRE TODAS Y TODOS. ES RESPONSABILIDAD DE TODAS Y TODOS.

Pasaia, compartiendo somos.